Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko otsailaren 12a, asteartea — 29 — Martes, a 12 de febrero de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntzak eskatzeko deialdia.*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urtarrilaren 29ko bilkuran deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2019. urteko dirulaguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogei egun balioduneko epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jartzen dio administraziobideari.

Errekurtsoak:

Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Usurbil, 2019ko urtarrilaren 30a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (600)

*Dirulaguntzak deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonei erantzuteko, aldi batez ezin direlako itzuli haien ingurune familiarrera.*

*1. Xedea.*

Araudi honen xedea da dirulaguntzak erregulatzea, Usurbilgo Udalak diruz laguntzeko zati batean 2018ko joan-etorrien gastuetan, batetik, Usurbiltik kanpo dauden pertsonen senideei eta, bestetik, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (sartzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) aldi batez haien ingurune familiarrera etorri ezin diren pertsonen senideei.

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Convocatoria para solicitar las ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil en sesión celebrada el 29 de enero de 2019, aprobó las bases del 2019 que regulan las ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social.

Se publica el texto íntegro de las bases y se concede un plazo de veinte días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación para que las personas interesadas presenten las solicitudes junto con toda la documentación necesaria para la obtención de las ayudas económicas.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Recursos:

Podrá interponer contra este acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante la Junta de Gobierno Local. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La persona solicitante podrá interponer dicho recurso en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la citada notificación.

No obstante, alternativamente al recurso de reposición o, en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Usurbil, a 30 de enero de 2019.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (600)

*Ayudas económicas para atender a personas en riesgo de desarraigo y exclusión social por hallarse temporalmente imposibilitadas de regresar a su entorno familiar.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente normativa la regulación de la concesión de ayudas económicas que el Ayuntamiento de Usurbil podrá otorgar para subvencionar parcialmente los gastos de desplazamientos originados en el 2018 a familiares de personas que se hallen fuera de Usurbil, y a las que les resulte temporalmente imposible regresar a su municipio de procedencia en cumplimiento de una resolución judicial (internamiento en centro psiquiátrico, penitenciario, de desintoxicación de drogodependencias).

EK\CV GAO-I-2019-00600

*2. Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke Usurbilen bizi diren pertsonen senideak, badin eta horiek sartu badituzte aldi batez zentro psikiatriko batean, kartzela batean edo drogamenpekotasun tratamendurako zentro batean, ebazpen judizial batengatik, lehentasun ordena honekin:

— Ezkontidea edo izatezko bikotea.

— Seme-alabak.

— Aita-amak.

— Neba-arrebak.

— Beste senitarteko batzuk.

Lehentasun ordenan sartuta dauden pertsonek kanpoan uzten dituzte, laguntza jasotzeari dagokionez, lehentasun maila txikiagoan dauden pertsonak.

Onuradun bakarra egon daiteke barneratu bakoitzeko. Lehentasun ordena berean bi pertsona edo gehiago egonez gero, kontuan hartuko da bakarrik adinez nagusiena.

Senide eskatzaileek erroldatuta egon beharko dira Usurbilen dirulaguntza eskaera aurkezten duten unean. Barneratuek egon beharko dute erroldatuta Usurbilen edo bertan jaioak izan.

Edozelan ere, Gizarte Ongizatearen informazio batzordeak ahalmena du aurkeztu litezkeen kasu berezi guztiak aztertu eta erabakitzeko.

*3. Onuradunen betebeharrak.*

Egoeran aldaketak gertatu ez gero, baizentro horietan sartuta daudenena, bai senideena, araudi honetako laguntzekin lotuta (adibidez, beste zentro batera eraman izana, barneratzea bukatu izana, bizikidetza unitatearen osaeran edo egoera ekonomikoan aldaketak izatea dirulaguntza osagarria jasoz gero), adierazi beharko zaizkio idatziz eta behar bezala egiaztaturik Udalaren Gizarte Zerbitzuetako administrazio atalari, aldaketok gertatu eta gehienez ere 30 eguneko epean.

*4. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Araudi honetako dirulaguntzak jaso nahi izanez gero, eskaera bat bete eta aurkeztu beharko da udalean, hartarako emandako inprimakian, eta horri atxikita agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Zentroan dagoen pertsonaren jaiotza akta, baldin eta Usurbilen erroldaturik ez badago.

c) Ebazpen judizialaren egiaztagiria.

d) Ahaidetasunaren edo harremanaren egiaztagiria (familia liburua, izatezko bikotearen ziurtagiria eta abar).

e) Bizikidetza unitateko kide guztien urteko diru-sarrerak jasotzen dituen dokumentazioa, eta bizikidetza unitatetzat ulertuko da, arau honen ondorioetarako, eskatzailearen etxe berean bizi diren pertsonen multzoa. (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenak, aurreko ekitaldiari dagokiona).

f) Bizikidetza unitateko kideen azken nomina edo pentsio agiria.

g) Zinpeko adierazpena, udalean emango den ereduaren arabera, zeinetan jasoko diren ondasunen titulartasuna, finantza gordailuak eta beste aktibo batzuk finantza entitateetako

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarios/as de estas ayudas los y las familiares de personas vecinas de Usurbil internas temporalmente en algún centro psiquiátrico, penitenciario o de desintoxicación de drogodependencias, por motivo de una resolución judicial, con el siguiente orden de preferencia:

— Cónyuge o pareja de hecho.

— Hijos e hijas.

— Progenitores.

— Hermanos y hermanas.

— Otros familiares.

Las personas integradas en un orden preferente excluyen, de cara a la percepción de la ayuda, a las que forman parte de otro menos preferente.

Sólo podrá haber una persona beneficiaria por cada persona interna. En el caso de que concurran dos o más personas integradas en el mismo orden preferente, se considerará únicamente a la persona de mayor edad.

Las y los familiares solicitantes deberán estar empadronadas en Usurbil en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica. Las personas internas deberán estar empadronadas en Usurbil o haber nacido en el municipio.

No obstante la comisión informativa de Bienestar Social queda facultada para estudiar y dirimir todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

*3. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las modificaciones que puedan producirse en la situación tanto de las personas internas como de las personas familiares, que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (por ejemplo, traslado a otro centro, finalización del internamiento, variaciones en la composición de la unidad convivencial o en la situación económica de la misma, en caso de percibir las ayuda económica complementaria), deberán ser comunicadas por escrito y debidamente acreditadas a la unidad administrativa de Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo máximo de 30 días desde que se hayan producido.

*4. Documentación a presentar.*

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitará a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.

b) Acta de nacimiento de la persona interna, en el caso de que no se encuentre empadronada en el municipio de Usurbil.

c) Documento acreditativo de la resolución judicial.

d) Documento acreditativo del parentesco o relación (libro de familia, certificado de pareja de hecho, etc.).

e) Documentación en la que se haga constar los ingresos económicos anuales de todos los miembros de la unidad convivencial, entendiéndose por unidad convivencial a efectos de la presente normativa el grupo de personas que convivan en el mismo domicilio de la persona solicitante. (Declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al ejercicio anterior).

f) Última nómina o documento sobre pensión de quienes forman de la unidad convivencial.

g) Declaración jurada, según modelo que se facilitará en el Ayuntamiento, en la que se hará constar la titularidad de los bienes, depósitos y otros activos financieros en cuentas de en-

EK\CV GAO-I-2019-00600

kontuetan, bizikidetza unitateko kide guztiena, eta horiei gehituko zaizkie dagozkien frogagiriak.

h) Medikuen txostenak, bizikidetza unitateko kideren bat gaixorik egonez gero, eta hark gastu kengarriak sortzen baditu.

i) Gastu berezien frogagiriak, hala badagokio.

j) Beste edozein agiri, Gizarte Ongizatearen informazio batzordeak beharrezkotzat jotzen duena.

k) Edozelan ere, araudi honetan araututa dauden dirulaguntzen eskatzaileek uko egiten badiote aurkezteari artikulu honetako e), f), g), h), i) eta j) hizkietan aipatzen diren agiriak, eskubidea izango dute gutxieneko laguntza bat jasotzeko, ezarria araudi honen 7.4.1 artikuluan deserrotze eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen senideentzat, aldi batez ezinezkoa baitzaie itzultzea familiartera ebazpen judizial baten ondorioz, betiere araudiaren 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

l) Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Usurbilgo udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordain tzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

m) Zinpeko adierazpena, non jasota egongo baitira, hala badagokio, beste dirulaguntza batzuk daudela (edo dirulaguntza eskaera batzuk) emandakoak (edo eginak) beste erakunde batzuek (edo haien aurrean), eta zenbatekoak.

*5. Aurkezteko epea.*

Eskariak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egun baliodunetako epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

*6. Administrazio atala, izapidetzeaz arduratzen dena.*

Eskaerak izapidetuko ditu Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateak.

*7. Irizpideak eskaerak baloratzeko.*

Dirulaguntzak, onuradunen eskubide direnak, honela kalkulatuko dira:

7.1. Diru-sarrera gordinen zenbaketa:

Bizikidetza unitatearen diru-sarreratzat honako hauek zenbatuko dira:

a) Diru-sarrerak, bizikidetza unitatea osatzen duten pertsona guztiena.

b) Ondasun higiezinen etekinak.

c) Ondasun higigarrien etekinak.

d) Depositoan jarritako diruen etekinak.

Hala izan ezean, diru-sarrera moduan zenbatuko da sortutako errendimendua.

7.2. Gastuak, diru-sarrera gordinei kentzekoak:

a) Etxebizitzaren alokairu gastuak.

b) Gastuak, bizikidetza unitateko kideren batek sortuak gaixotasun batengatik, behar bezala egiaztatuta.

c) Eskola gastuak.

tidades financieras, de todos los miembros de la unidad convivencial, a la que se unirán los documentos justificativos correspondientes.

h) Informes médicos, en caso de enfermedad de algún miembro de la unidad convivencial que genere gastos deducibles.

i) Justificantes de gastos extras, en su caso.

j) Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Bienestar Socialpueda considerar necesaria.

k) No obstante, las personas solicitantes de las ayudas económicas reguladas en la presente normativa que renuncien a presentar la documentación prevista en las letras e), f), g), h), i) y j) del presente artículo, tendrán derecho a percibir la ayuda mínima establecida en el artículo 7.4.1 de la presente normativa para familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social por hallarse temporalmente imposibilitadas de regresar a su entorno familiar en cumplimiento de una resolución judicial, siempre que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 2 de la misma.

l) La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Usurbil, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

m) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otrassubvenciones (o solicitudes de subvención) concedidas (o formuladas) por (o ante) otras instituciones y cuantía.

*5. Plazo de presentación.*

Las solicitudes deberán presentarse en un plazo de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si la documentación presentada es incompleta o si no cumpliese con alguna de las condiciones estipuladas en las bases, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez días hábiles para subsanar los errores o para incorporar la documentación correspondiente. Y se le indicará que, en base a los términos previstos en el art. 68.1 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

*6. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

*7. Criterios de valoración de las solicitudes.*

El cálculo de las ayudas económicas a las que tienen derecho los beneficiarios se realizará de la siguiente manera:

7.1. Cómputo de los ingresos brutos:

Se contabilizarán como ingresos de la unidad convivencial los siguientes:

a) Ingresos de todas las personas que conforman la unidad convivencial.

b) Rendimientos por bienes inmuebles.

c) Rendimientos por bienes muebles.

d) Rendimientos por capitales en depósito.

En caso contrario, se computará como ingreso el rendimiento generado.

7.2. Gastos deducibles a los ingresos brutos:

a) Gastos de alquiler de la vivienda.

b) Gastos originados por enfermedad de algún miembro de la unidad convivencial debidamente justificados.

c) Gastos escolares.

EK\CV GAO-I-2019-00600

d) Gastuak, interesak eta amortizazioa ordaintzeagatik, bizikidetza unitateko lehen etxebizitza erosteko eskatutako maileguetatik datozenak.

e) Gastuak, familiako kideei laguntza pertsonal eta/edo etxekoa ematetik datozenak.

f) Beste batzuk, behar bezala frogatuta.

Ez dira zenbatuko gastu kengarri moduan:

a) Garajearen alokairu gastuak.

b) Gastuak sortu badira ohiko etxebizitza erostea ez beste inbertsio batzuengatik.

7.3. Diru-sarrera garbiak kalkulatzea:

Kenduko zaizkie diru-sarrera gordin guztieigastu kengarri guztiak, eta horrela lortuko dira bizikidetza unitatearen diru-sarrera garbiak.

7.4. Banakako dirulaguntzen zenbatekoa.

7.4.1. Gutxieneko diru-laguntza: Zentroetan sartutako pertsonen senideek betetzen badituzte baldintzak onuradun izateko, dirulaguntzen eskaera bete eta aurkeztuz gero, eskubidea izango dute, gutxienez, dirulaguntza hau eman dakien:

Diru kopurua ateratzen da Usurbiltik eskatzailearen senidea dagoen zentrora zenbat kilometro dagoen (joan-etorria) biderkatuta 0,29 eurorekin. Dirulaguntza hori emango da, gehienez ere, hilean behin. Bidaiak egiten badira uharteko lurraldean dagoen zentro batera, organo eskudunak proposatuko du banakako dirulaguntza bat ematea, kasu bakoitzaren aztertuta.

7.4.2. Dirulaguntza osagarria: Aurreko atalean ezarritako laguntzaz gain, eskatzaileak, dirulaguntzen eskaerarekin batera, aurkezten baditu agiri ekonomikoak, 4. artikuluan zehaztuak, diru-sarrera garbiak kalkulatu eta gero, eragiketa hau egingo da:

Diru-sarrera garbiei kenduko zaie I. eta II. Taulan ezarritako kopurua (ikusi 1. eranskina), bizikidetza unitatea gurasobakarrekoak izan edo ez, bizikidetza unitate horietako kideen arabera.

— Kenketa hori egin eta ateratzen den kopurua bada eskaera izapidetzen den urtean lanbidearteko gutxieneko soldataren % 100 baino txikiagoa edo berdina, eskatzaileak eskubidea izango du laguntza bat jasotzeko, bi bidaia gehiagorako dirulaguntza, artikulu honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, irizpide honetako 1. atalean araututako gutxienekoaz gain, hau da, dirulaguntzak hiru bidaia egiteko.

— Hala ere, ateratzen den kopurua badago eskaera izapidetzen den urtean lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 ea % 125 artean, baino txikiagoa edo berdina, eskatzaileak eskubidea izango du laguntza bat jasotzeko, bi bidaia gehiagorako dirulaguntza, artikulu honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, irizpide honetako 1. atalean araututako gutxienekoaz gain, hau da, dirulaguntzak bi bidaia egiteko.

— Azkenik, ateratzen den kopurua izanez gero eskaera izapidetzen den urtean lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125 baino handiagoa, eskatzaileak eskubidea izango du bakarrik gutxieneko dirulaguntza jasotzeko, ezarria artikulu honetako lehen atalean.

*8. Aurrekontua.*

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:

1.8000.480.231.03.03.

Aurrekontuaren zenbatekoa ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutenak, ko-

d) Gastos por el pago de intereses y amortización derivados de préstamos solicitados para la adquisición de la primera vivienda de la unidad convivencial.

e) Gastos derivados de la atención personal y/o doméstica a miembros de la familia.

f) Otros debidamente justificados.

No se contabilizarán como gastos deducibles:

a) Gastos por alquiler de garaje.

b) Gastos ocasionados por inversiones distintas a la adquisición de la vivienda habitual.

7.3. Cálculo de ingresos netos:

Se realizará la operación de restar al total de los ingresos brutos el total de los gastos deducibles obteniéndose así los ingresos netos de la unidad convivencial.

7.4. Cuantía de las ayudas económicas individuales.

7.4.1. Ayuda económica mínima: Los familiares de las personas internas que cumplan con los requisitos para resultar beneficiarios establecidos en el artículo 2 que cumplimenten y presenten la solicitud de ayudas económicas, tendrán derecho, como mínimo, a que se les conceda la siguiente subvención:

El importe que resulte de multiplicar el número de kilómetros que exista entre Usurbil y el centro correspondiente (ida y vuelta) en el que se encuentre el familiar del/la solicitante por 0,29 €. Esta ayuda económica se concederá una vez, como maximo, al mes. En caso de viajes a centros situados en territorio insular, el órgano competente propondrá la concesión de una subvención individualizada atendiendo a las circunstancias de cada caso.

7.4.2. Ayuda económica complementaria: Además de la ayuda establecida en el apartado anterior, si la persona solicitante hubiera presentado junto con la solicitud de ayudas la documentación económica detallada en el artículo 4, una vez calculados los ingresos netos, se realizará la siguiente operación:

Se restará de los ingresos netos la cantidad establecida en las tablas I y tabla II (Ver anexo 1), según se trate de unidades convivenciales monoparentales o no, en función de los miembros de esas unidades convivenciales.

— Realizada la resta, si la cantidad obtenida es inferior o igual al 100 % del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, la persona solicitante tendrá derecho a una ayuda consistente en percibir una subvención para dos viajes más, según la fórmula descrita en el apartado 1.º de este artículo, además del mínimo regulado en el apartado 1 de este criterio, es decir, ayudas económicas para tres viajes.

— Sin embargo, si la cantidad obtenida se hallara entre el 100 % y el 125 % del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, el/la solicitante tendrá derecho a una ayuda consistente en percibir una subvención para un viaje más según la fórmula descrita en el apartado 1.º de este artículo, además del mínimo regulado en el apartado 1 de este artículo, es decir, ayudas económicas para dos viajes.

— Por último, si la cantidad obtenida fuera mayor al 125 % del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, el/la solicitante tendrá derecho únicamente a la ayuda económica mínima establecida en el apartado 1.º de este artículo.

*8. Presupuesto.*

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria:

1.8000.480.231.03.03.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de

EK\CV GAO-I-2019-00600

puru hori handitu egingo da kreditu aldaketen bidez, udal aurrekontuaren exekuzio arauetan jaso bezala.

*9. Aldibereko laguntzak.*

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain-finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain-finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

*10. Justifikazio epea eta modua.*

Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu beharko du benetan bisitatu duela zentroan edo ospitalean sartu duten pertsona.

Horretarako, onuradunak ziurtagiria aurkeztu beharko du, dagokion zentroko zuzendariak egina, zeinak adieraziko duen zenbat bisita egin duen onuradunak hilean.

Hau aurkeztea ezinezkoa bada, interesatuak zentroari egin dituen bisitak zehaztuz egindako ziurtagiri eskaeraren agiria aurkeztu beharko du udalak emango dion zinpeko adierazpen izaerako inprimaki batekin batera.

Albora utzi gabe lehen adierazitakoa, bai ziurtagiria, dagoen zentroak egina, bai zinpeko adierazpena, bisita egin izanarena, ordeztu daitezke beste edozein agiri aurkeztuta, balioa badu zuzenbidean, eta egiaztatu badaiteke benetan bisitak egin direla.

*11. Zelan ordaindu eta zer epe dagoen ordaintzeko.*

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 100a ordainduko da.

*12. Klausula gehigarria.*

Oinarri espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez bada zerbait, aplikatuko zaio oinarri orokorretan ezarritakoa.

Halaber, aginduko dute Dirulaguntzen udal ordenantzak, Plan Estrategikoak eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, eta bat datozen gainerako lege arauek.

1. ERANSKINA

*Baremoa, dirulaguntza osagarria zehazteko*

los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

*9. Concurrencia de ayudas.*

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

*10. Plazo y forma de justificación.*

Previo al abono de la ayuda, la persona beneficiaria deberá acreditar que ha visitado efectivamente a la persona ingresada en el centro correspondiente.

Para ello, la persona beneficiaria deberá presentar certificado expedido por la Dirección del centro que corresponda que señale el número de visitas efectuadas por la persona beneficiaria durante el mes.

Ante la imposibilidd de presentar dicho certificado, la persona interesada deberá presentar, además del impreso de declaración jurada que le facilitará el ayuntamiento, justificante de haber solicitado el certificado donde consten los días de visita.

Sin perjuicio de lo anteriormente señalado, tanto el certificado expedido por el centro correspondiente como la declaración jurada de haber realizado la visita podrán sustituirse por cualquier documento válido en Derecho que pueda acreditar la veracidad de las visitas realizadas.

*11. Forma y plazos de pago.*

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención,se procederá a tramitar el pago del 100 % de la ayuda.

*12. Cláusula adicional.*

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Plan Estratégico y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

ANEXO 1

*Baremo para determinar la ayuda económica complementaria*

| *Familia unitatea / unidad familiar* | *I. Taula / Tabla I*<br>*Zenbatekoa / Cuantía* | *II. Taula/Tabla II*<br>*Guraso bakarreko bizikidetza unitateak*<br>*Unidades de convivencia monoparentales*<br>*Zenbatekoa / Cuantía* |
|---|---|---|
| Kide bat / 1 persona | SMI | -- |
| 2 kide/ 2 personas | 130 % LGS/SMI | 160 % LGS/SMI |
| 3 kide/ 3 personas | 160 % LGS/SMI | 190 % LGS/SMI |
| 4 kide/ 4 personas | 190 % LGS/SMI | 220 % LGS/SMI |
| 5 kide/ 5 personas | 220 % LGS/SMI | 250 % LGS/SMI |
| 6 kide/ 6 personas | 250 % LGS/SMI | 280 % LGS/SMI |
| 7 kide/ 7 personas | 280 % LGS/SMI | 310 % LGS/SMI |
| 8 kide/ 8 personas | 310 % LGS/SMI | 340 % LGS/SMI |

EK\CV GAO-I-2019-00600

Usurbilgo Udala

# DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

SOLICITUD DE AYUDAS ECONOMICAS PARA ATENDER A FAMILIARES DE PERSONAS EN RIESGO DE DESARRAIGO Y EXCLUSION SOCIAL.

## 1.- ESKATZAILEAREN DATUAK/Datos del solicitante

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen abizena**/ Primer apellido | **Bigarren abizena**/Segundo apellido | **Izena**/Nombre | | **NAN-AIZ-Pasaporte**/DNI-NIE-pasaporte | |
| **Jaioteguna**/Fecha de nacimiento | **Nazionalitatea** Nacionalidad | **Sexua**/sexo<br>Gizona ☐ | Emakumea ☐ | **Egoera Zibila** Estado Civil | **Ezgaitasuna gradua** Grado de minusvalía |
| **Helbidea**/Dirección | | | | | |
| **PK**/CP | Herria/Municipio | Probintzia/Provincia | | **Telefonoa**/Telefono | |
| **Barneratuta dagoen pertsonarekin duen ahaidetasuna/Relación con la persona** | | | | | |
| **Bidaia**/Viaje<br>**Norbere baliabideez** /Por cuenta propia ☐ | | | **Garraio publikoa erabiliaz**/Utilizando transporte púbico ☐ | | |

## 2.- BANKETXEA/Banco

| **BANKETXEA**/Banco | **Kontuaren zenbkia**/Nº de cuenta: |
|---|---|
| | |

## 3.- BARNERATUTA DAGOEN PERTSONAREN DATUAK/Datos de la persona que se encuentra interna

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen abizena**/ Primer apellido | **Bigarren abizena**/Segundo apellido | **Izena**/Nombre | | **NAN-AIZ-Pasaporte**/DNI-NIE-pasaporte | |
| **Jaioteguna**/Fecha de nacimiento | **Nazionalitatea** Nacionalidad | **Sexua**/sexo<br>Gizona ☐ | Emakumea ☐ | **Egoera Zibila** Estado Civil | **Ezgaitasuna gradua** Grado de minusvalía |
| **Helbidea**/Dirección | | | | | |
| **PK**/CP | Herria/Municipio | Probintzia/Provincia | | **Telefonoa**/Telefono | |
| **Barneratze zentroa/**Centro en el que se encuentra interna | | | | | |
| **Barneratze zentrotik Usurbila dagoen distantzia (Km)** /Distancia (Km.) desde el centro donde está interno a Usurbila | | | | | |



Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus •

EK\CV GAO-I-2019-00600

Usurbilgo Udala

**Honen bidez ESKATZEN DUT Usurbilgo Udalak ematen dituen dirulaguntzak jasotzea, goian aipatutako senitartekoari bisitaldiak egiteak dakarren gastuei neurri baten aurre egiteko**. Por la presente SOLICITO subvención para abonar parte de los gastos originados por las visitas realizadas al familiar arriba mencionado

**Dokumentazio hauxe aurkezten dut**/Presento la siguiente documentación:

- ❑ **Eskatzailearen edo/eta ordezkariaren NAN agiriaren kopia**/Fotocopia del DNI del solicitante y/o representante
- ❑ **Barneratua dagoen pertsonaren jaiotza akta, baldin eta Usurbilen erroldaturik ez badago/** Acta de nacimiento, cuando la persona que está ingresada no está empadronada en Usurbil
- ❑ **Ebazpen judizialaren agiria/** Resolución judicial
- ❑ **Ahaidetasunaren edo harremanaren egiaztagiria (familia liburua, izatezko bikotearen ziurtagiria eta abar)** Certificado que acredite el parentesco o relación (libro de familia, certificado de parejas de hecho, etc.)
- ❑ **Administrazioarekiko zerga obligazioak betetzen direla egiaztatzea**/Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Administración
- ❑ **Zinpeko adierazpena, non jasota egongo baita, hala badagokio, ea tartean beste erakunde batzuek emandako (edo haiei eskatutako) beste dirulaguntza batzuk (edo dirulaguntza eskaera batzuk) dauden; baita horien zenbatekoak**/ Declaración jurada donde se haga constar, si así procede, la(s) ayuda(s) recibida(s) o solicitada(s) a otra(s) institucion(es), así como el importe de las mismas
- ❑ **Gizarte Ongizateko informazio batzordeak beharrezkotzat jo dezakeen beste edozein agiri**/ Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Servicios Sociales estime necesaria

………………………………………………………………………………………………………...................

**Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu behar du benetan bisitatu duela barneratuta dagoen pertsona.**

Previo al abono de la ayuda, la persona beneficiaria deberá acreditar que ha visitado efectivamente a la persona ingresada en el centro correspondiente

**Horretarako, dagokion zentroaren zuzendariak egindako ziurtagiria aurkeztuko du onuradunak. Agiri horretan adieraziko da zenbat bisita egin duen onuradunak epealdian zehar.**

Para ello, la persona beneficiaria deberá presentar certificado expedido por la Dirección del centro que corresponda que señale el número de visitas efectuadas por la persona beneficiaria durante el mes.

**Hau aurkeztea ezinezkoa bada, interesatuak zentroari egin dituen bisitak zehaztuz egindako ziurtagiri eskaeraren agiria aurkeztu beharko du udalak emango dion zinpeko adierazpen izaerako inprimaki batekin batera**

Ante la imposibilidad de presentar dicho certificado, la persona interesada deberá presentar, además del impreso de declaración jurada que le facilitará el ayuntamiento, justificante de haber solicitado el certificado donde consten los días de visita.

**Lehenago adierazitakoaren kalterik gabe, dagokion zentroak egindako ziurtagiriaren nahiz bisita egin izanaren zinpeko adierazpenaren ordez, zuzenbidean baliozkoa den edozein agiri erabili ahal izango da, baldin eta bisitak benetan egin direla egiaztatzen badu.**

Sin perjuicio de lo anteriormente señalado, tanto el certificado expedido por el centro correspondiente como la declaración jurada de haber realizado la visita podrán sustituirse por cualquier documento válido en Derecho que pueda acreditar la veracidad de las visitas realizadas.


Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus •

Usurbilgo Udala

**Aipatutako ziurtagiriarekin batera, bidaia norbere baliabideez edo garraio publikoan egin duela erakusten duen gastu agiria aurkeztu beharko du**.

Junto con la documentación mencionada, será necesario presentar documentación que justifique si el viaje se realizó por cuenta propia o en transporte público.

**NIRE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DUT egiazkoak direla eskaera honetan azaltzen diren datuak, eta aurrerantzean gerta daitekeen edozein aldaketaren berri emateko dudan obligazioaz jakinaren gainean geratzen naiz**

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD que son ciertos los datos consignados en la presente solicitud y quedo enterado/a de la obligación de comunicar cualquier variación que pudiera producirse en lo sucesivo.

**Data eta Sinadura/**Fecha y Firma:

## **BAIMENAK**/Consentimientos:

| | | |
|---|---|---|
| **Baimena ematen diot espresuki Usurbilgo Gizarte Zerbitzuei, sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla.** | Autorizo expresamente a los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Usurbil para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social | |
| **Izen-abizenak**<br>Nombre y apellidos | **NAN**<br>DNI | **Sinadura**<br>Firma |
| | | |
| | | |
| | | |

**OHARRA: Eskaera honetan jasotako datuak sekretu estatistikoaren bitarte babestuak daude eta Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntza kudeaketaz gain ezin izango dira ekoizpen estatistikoa ez den beste xede batekin erabili. Oinarrizko gizarte zerbitzuen aurrean datu hauen zuzenketa eta sarrera eskubideak izango dira nahi izan ezkero, hauek izaera pertsonaleko babespen datuei buruzko Lege Organikoan aurre ikusten dira.**

NOTA: los datos contenidos en la presente solicitud quedan amparados por el secreto estadístico y no se podrán utilizar con ninguna otra finalidad distinta de la producción de estadísticas, además de la gestión de la solicitud de ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social para lo cual serán remitidos al Ayuntamiento. Ante el Servicio Social de Base podrá ejercer si lo desea, los derechos de acceso y rectificación de estos datos, previstos en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal



Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus •



EK\CV GAO-I-2019-00600